

2002 KUDEAKETA TXOSTENA

Ohikoa denez, ondoko dokumentu honen bitartez 2002. urtean GEROA BGAE erakundearen izan diren gertakariak adierazgarrienak aurkeztuko dizkizuegu.

Lehenengo urtean aipatu genuen bezala, urte hau ere konplexutasun handiko urtea izan da eta, eta oso zaila izan da AURREIKUSPENERAKO, horretaz gain jarraian hirugarren urtea da hori gertatzen dela. Batetik, hitzarmen kolektiboen negoziazioak ez du GEROA BGAErako ekarpenen ehunekoetan gehikuntzarik eragin, bestetik oro har, mundu-mailan ekonomia-egoerak behera egin du eta honek eragin nabarmena izan du finantza-merkatuetan; honen ondorioz etekinak ez dira handiak izan. Dena den, gure erakundea Euskadiko handiena da erakundeko partaide diren langileen kopuruari dagokionez eta bigarren handiena ekarpenei dagokionez eta pixkanaka, ondarea haunditzen doa.

2002. ekitaldian jarduera-sektore batek, Fruta eta Barazkien Handizkariak, bakarrik barne hartu du. Bestalde, erakundearen barne hartzen diren hamabost sektoreetatik urte hasieran lauk baino ez dute beren ekarpenaren ehuneko gehitu: Zeramika, Iragan-arloak, Beira eta Hornitegiak. Gipuzkoan sektoreko hitzarmenik ez duten ondoko enpresak ere areagotu egin dituzte beren ekarpenen ehunekoak: Herribus taldea, Cementos Rezola eta Savera taldeak, honetaz gain, Kursaal Producciones eta Zahorrek barne hartu dute. Ondoko taulan erakundearen parte hartzen duten sektoreak eta ekarpenaren ehunekoak adierazten dira:

SEKTOREAK	2002ko GUZTIZKO EKARPENAREN %	SEKTOREAK	2002ko GUZTIZKO EKARPENAREN %
Metalgintza	%3,5 aldaketarik gabe	Papera eta kartoia	%1,2 aldaketarik gabe
Zeramika	%3,0 %0,5eko gehikuntza	Altzariak eta osagarriak	%1,0 aldaketarik gabe
Zuraren industria	%2,0 aldaketarik gabe	Ehun-arloko merkataritza	%1,6 aldaketarik gabe
Iragan-arloa	%3,0 %0,5eko gehikuntza	Larru-arloko merkataritza	%1,6 aldaketarik gabe
Okindegiak	%1,2 aldaketarik gabe	Metal-arloko merkataritza	%2,0 aldaketarik gabe
Beira	%2,5 %0,5eko gehikuntza	Garbiketara	%0,5 aldaketarik gabe
Eraikuntza	%2,5 aldaketarik gabe	Hornitegiak	%1,5 %0,5eko gehikuntza
		Fruta eta Barazkien Handizkariak	%1,0 urte honetan berria

2002. urtean GEROA BGAE erakundera 120.000 langile bazkide baino gehiagok egin dituzte ekarpenak, langile hauek 8.125 enpresatakoak ziren.

Ekarpenak joan den urteko baino handiagoak izan dira sektoreen ekarpenak handiagoak izan direlako eta kontingentzia arruntan oinarriaren igoeraren ondorioz. 2001eko 50,46 milioi euroko kuotaetatik 2002ko 54,62 milioi eurotara pasa gera, hau da, %8,24ko gehikuntza izan da.

GEROA BGAE erakundearen ondarea ekitaldiaren amaieran 237,16 milioi eurokoa izan da eta zenbateko hau langileen artean banatzen da, betiere langileek egin dituzten ekarpenen proportzioari jarraituta, aurreko ekitaldiarekiko gehikuntza %30,50koa izan delarik.

EGOERA-BALANTZEA

2002eko abenduaren 31n, mila eurotan.


AKTIBOAK		PASIBOAK	
Ibilgetua	794	Fondo propioak	238.129
Inbertsioak	247.280	2002eko ekitaldiko irabaziak	6.798
Hainbat zordun	565	Hornidura matematikoa	5.375
Diruzaintza	2.029	Hainbat hartzekodun	366
AKTIBOAK GUZTIRA	250.668	PASIBOAK GUZTIRA	250.668

GALDU-IRABAZIEN KONTUA


2002eko abenduaren 31n, mila eurotan.

GASTUAK		SARRERAK	
Prestazioak, berrasegurua	4.189	Ekitaldiko kuotak	54.618
Administrazio-gastuak	1.104	Inbertsioen sarrerak	16.000
Inbertsio-gastuak	9.298	Horn. matematikoa sob.	1.200
Hainbat eskubide bateratu	50.429		
Ekitaldiko mozkina	6.798		
ZORRAK GUZTIRA	71.818	HARTZEKOAK GUZTIRA	71.818


MOZKINEN BILAKAERA



2002 LIKIDAZIO-BALIOAREN BILAKAERA



ONDAREAREN BILAKAERA



INBERTSIO-ZORROAREN BANAKETA (%)

2002. urtean aurreko bi urteetan bezala, etekin negatiboak lortu dira burtsa-merkatuetan; burtsa-merkatuek galera orokorrak izan zituzten berriro ere; Ibex indizeak %28,11 egin zuen behera, Eurostoxx indizeak %37,30 eta Nasdaq indizeak %31,53. Halaber, munduko ekonomien etengabeko gainbeheraren ondorioz banku zentralak eta bereziki Ameriketako Erreserba Federalak interes-tasak murrizten jarraitu dute, %1,75etik %1,25era Ameriketako kasuan eta %3,25etik %2,75era Europaren kasuan, inbertsioen kudeaketan errentagarritasuna txikiagoa izanik.


Zalantza eta pesimismo orokorrak eragin handia izan du merkatu finantzietan, ez bakarrik faktore finantziario edo enpresen hazkuntzagatik baizik eta kanpoko eragile batzuegatik ere, hala nola, Irakeko erasoak, amerikar industria batzuen kontabilitatearen zurikeria, Worldcom eta Enron bezalako kasuak edo Brasilgo lehendakariaren hauteskundeak. Testuinguru honetan, Geroako ondarearen kudeaketa, gertakariekin bat etorri da, urtea pasatzen ziholan heinean, pixkanaka kontserbadoreagoa bihurtuz, errenta aldakorra gutxiagotuz eta epe laburreko errenta finkoko ponderazioa gehituz. Geroako ondareak 2002 urtea amaitu zuen gehiengo errenta finkoan inbertituz, %89,21eko portzentaiera iritsi arte eta ondorioz %3,3ko urteko errentagarritasuna lortuz.

AKTIBO-MOTA	ZORROAREN GUZTIZKOAREN GAINEKO %
Epe luzerako errenta finkoa	%75,32
Epe laburrerako aktiboak	%13,89
Errenta aldakorra	%7,30
Zuzeneko inbertsioa	%2,83
Likidezia	%0,66

PRESTAZIOAK

2002. urtean 1.175 prestazio egin dira, 569 erretiroaren ondoriozkoak izan dira, 277 baliaezintasun iraunkor erabatekoaren ondoriozkoak, 152 baliaezintasun iraunkor absolutuaren ondoriozkoak, 4 baliaezintasun handiaren ondoriozkoak, 141 heriotzaren ondoriozkoak, 13 Atzerapenak izenpearen barne (aurreko urtetako prestazioak) eta 19 lan-istripuen ondoriozkoak langilearen balieztasun handia edo heriotza sortu dutenak. Prestazio hauen guztizko zenbatekoa 6,50 milioi eurokoa izan da.

2002EKO PRESTAZIOEN ONURADUNAK




Baliaezintasun eta heriotzen ondorioz ordaindutako prestazioetatik 432 prestaziok estaldura osagarria izan dute, guztira 4,88 milioi eurokoa, 292 kapital gisa ordaindu dira eta gainerako 140 errenta gisa ordaindu dira. Errenta hauei aurre egiteko GRM/F-95 taula aktuarialak erabili dira eta interes-tasa teknikoa %4koa izan da. Kontzeptu honen ondorioz bere egindako konpromisoak 3,92 milioi eurokoak dira eta Biharko, Pentsio Fondoen eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen Aholkularitza, SAK balaratu ditu.

GERTAKIZUN AIPAGARRIAK

2003. urtetik aurrera, Prestazioen Erreglamendua indarrean jarri da, Bazkide edo Onuradunek eskatzen dituzten prestazioei buruzko eskaera, bideratzea eta ordaintzaren jokabideak zehazten dituenak.

2003. urtetik aurrera, errenta gisa ordaindutako prestazioen balio handitzea indarrean jarri da, beti ere Erakundearen errentagarritasuna %4a baino gehiago denean. Ezarriko den balio handitzearen portzentaia Erakundeak lortzen duen errentagarritasunaren soberakinaren %70 izango da (%4aren gain).



2002 KO KUDEAKETA TXOSTENA

Lugaritz, 27 - 20018 Donostia
 Tel.: 943 317022 - Fax: 943 317280
<http://www.geroa.es> - e-mail: geroa@geroa.es